

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA (ETH)- 2014KO MARTXOA

Euskal AEko hotel-establezimenduetako bidaiari-sarrerak %13,4 gutxitu ziren martxoan

Gaualdiak %17,2 gutxitu dira aurreko urteko hil -2013ko Aste Santua barne izan zuen- beraren aldean

Eustaten datuen arabera, 2014ko martxoan 161.426 bidaiari-sarrera erregistratu ziren Euskal AEko hotel-establezimenduetan, aurreko urteko hil berean baino 25.054 sarrera gutxiago, hots, %13,4 gutxiago. Bidaiari-sarrerak %15,4 gutxitu ziren Araban, %16,0 Gipuzkoan eta %10,8 Bizkaian. **Komeni da gogoraraztea 2013ko Aste Santua martxoan izan zela eta aurtengoa apirilean.**

Gaualdiak, 2014ko martxoan, 288.927 izan ziren, aurreko urtekoan baino %17,2 gutxiago, hots, 60.051 gaualdi gutxiago. Gaualdiak urte artean %23,1 gutxitu dira Araban, %18,9 Gipuzkoan eta %13,9 Bizkaian.

1. taula.- Euskal AEko hotel-establezimenduetako gaualdiak, bidaiarien sarrerak, batez besteko egonaldia eta betetze-maila. Martxo 2014

	Gaualdiak		Bidaiarien sarrerak		Batez besteko egonaldia		Betetze-maila (%)			
	2014/03	m/m-12 (%)	2014/03	m/m-12 (%)	2014/03	2013/03	plazaka		gelaka	
							2014/03	p.p.*	2014/03	p.p.*
EUSKAL AE	288.927	-17,2	161.426	-13,4	1,79	1,87	33,8	-7,4	44,7	-5,9
Estatukoak	205.093	-16,0	117.765	-12,0	1,74	1,83	-	-	-	-
Atzeritarrak	83.834	-20,0	43.661	-17,2	1,92	1,99	-	-	-	-
ARABA/ÁLAVA	39.086	-23,1	22.622	-15,4	1,73	1,90	28,3	-8,7	37,3	-8,2
Estatukoak	30.938	-22,4	18.581	-13,1	1,67	1,87	-	-	-	-
Atzeritarrak	8.148	-25,7	4.041	-24,4	2,02	2,05	-	-	-	-
Vitoria-Gasteiz	30.520	-18,6	16.872	-8,5	1,81	2,03	31,4	-8,1	42,9	-7,6
BIZKAIA	139.886	-13,9	79.186	-10,8	1,77	1,83	35,5	-6,2	48,5	-4,2
Estatukoak	97.651	-12,8	57.647	-9,0	1,69	1,77	-	-	-	-
Atzeritarrak	42.235	-16,4	21.539	-15,4	1,96	1,98	-	-	-	-
Bilbao	95.011	-11,8	52.865	-6,6	1,80	1,90	40,6	-8,7	55,0	-7,5
GIPUZKOA	109.955	-18,9	59.618	-16,0	1,84	1,91	34,2	-8,5	43,1	-7,0
Estatukoak	76.504	-17,1	41.537	-15,3	1,84	1,88	-	-	-	-
Atzeritarrak	33.451	-22,8	18.081	-17,5	1,85	1,98	-	-	-	-
Donostia / San Sebastián	60.213	-21,6	34.004	-13,6	1,77	1,95	38,9	-11,3	49,0	-9,1

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajezko puntuko aldea


Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta (ETH)

Atzerriko bidaiariak %17,2 gutxitu dira aurreko urteko martxoaren aldean eta estatukoak %12,0. Araban atzeritarrak %24,4 gutxitu dira eta estatukoak %13,1. Bizkaian atzeritarrak %15,4 gutxitu dira eta estatukoak %9,0. Gipuzkoan atzeritarrak %17,5 gutxitu dira eta estatukoak %15,3.

Batez besteko egonaldia, 1,79 egun, aurreko urteko martxoan 1,87 izan zelarik. Araban 2013ko martxoko 1,90 egunetik aurtengo 1,73ra; Bizkaian 1,83tik 1,77ra; Gipuzkoan 1,91etik 1,84ra.

Plazakako betetze-maila ehuneko 7,4 puntuz jaitsi da Euskal AE osoan, 2013ko martxoko %41,3tik aurtengo %33,8ra. Araban ehuneko 8,7 puntuz jaitsi da, 2013ko %37,0tik aurtengo %28,3ra. Bizkaian ehuneko 6,2 puntuz jaitsi da, 2013ko %41,6tik aurtengo %35,5era. Gipuzkoan ehuneko 8,5 puntuz jaitsi da, 2013ko martxoko %42,6tik aurtengo %34,2ra. Gelakako betetze-maila ehuneko 5,9 puntuz jaitsi da Euskal AEn, okupazioa %44,7. Araban ehuneko 8,2 puntuz jaitsi da, %37,3ra; Bizkaian 4,2z, %48,5era; Gipuzkoan 7,0z, %43,1era.

Grado de ocupación por plazas de los establecimientos hoteleros de la C.A. de Euskadi por Territorio Histórico (%)



Fuente: Eustat. Encuesta de establecimientos turísticos receptores ETR

Hotel-okupaziorik handienak martxoan Bilbon (%40,6), Donostian (%38,9) eta Bilbo Handian (%32,7).

Asteko eguna aintzat hartuta, 2014ko martxoan okupaziorik handiena (%45,3) aste-bukaeretan da; %29,1 lanegunetan.

2013ko martxoaren aldean langile okupatuak %1,5ez gutxitu dira aurtengoan.

Nekazaritza-ostatueta bai sarrerak, (%18,1) bai gualdiak (%43,0) gutxitu egin dira martxoan

Euskal AEko landa-establezimenduetan martxoan 13.663 gualdi erregistratu ziren, %-43,0 aurreko urteko hil beraren aldean, non 2013ko Aste Santua izan baitzen. Araban %-32,2, Gipuzkoan %-47,2, Bizkaian %-39,6.

Plazakako betetze-maila, %12,0, ehuneko 7,3 puntu gutxiago 2013ko martxoan baino. Araban ehuneko 3,9 puntu gutxiago, betetze-maila %10,3. Bizkaian betetze-maila %10,5, ehuneko 5,5 puntu gutxiago 2013ko martxoaren aldean eta Gipuzkoan 9,8 puntu gutxiago, %13,7.

Euskal AEko landa-ostatueta 7.675 bidaiari-sarrera erregistratu ziren aurtengo martxoan, %-18,1 aurreko urteko hil beraren aldean. Araban sarreretan %-2,7 dugu; Gipuzkoan %-24,2 eta Bizkaian %-13,2.

432 atzerritar-sarrera izan genituen, %-31,0 aurreko urtekoen aldean eta sarrera guztien %5,6. Estatuko bidaiarien sarrerak %17,2 gutxitu ziren.

Batez besteko egonaldia, 1,78 egun aurtengo martxoan, lehengo urtean baino laburragoa.

2. taula.- Euskal AEko landa-establezimenduetako gualdiak, bidaiarien sarrerak, batez besteko egonaldia eta betetze-maila. Martxoa 2014

	Gualdiak		Bidaiarien sarrerak		Batez besteko egonaldia		Plazakako betetze-maila (%)	
	2014/03	m/m-12 (%)	2014/03	m/m-12 (%)	2014/03	2013/03	2014/03	p.p.*
EUSKAL AE	13.663	-43,0	7.675	-18,1	1,78	2,56	12,0	-7,3
ARABA/ÁLAVA	2.563	-32,2	1.540	-2,7	1,66	2,39	10,3	-3,9
BIZKAIA	3.486	-39,6	1.835	-13,2	1,90	2,73	10,5	-5,5
GIPUZKOA	7.614	-47,2	4.300	-24,2	1,77	2,54	13,7	-9,8

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajeazko puntuko aldea

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta (ETH)

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua servicioprensa@eustat.es Tlf: 945 01 75 62

THI-Euskal AEko establezimendu turistiko hartzaileen inkestari buruzko prentsa-ohar gehiago

THI-Euskal AEko Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkestari buruzko datu-bankua